



## **LABen oharra:**

Sindicato Andaluz de Trabajadores/as (SAT)-eko 20 sindikalistek Mercadonatik janaria hartu eta Andaluziako behartsuei emateagatik 30 urteko kartzela zigor eskariei aurre egin beharko diote gaur.

Gaur irailak 5, Sindicato Andaluz de Trabajadores/as-eko (SAT) 20 militantek epaiketa izango dute orain zazpi urte Ecijako (Sevilla) Mercadona batetik janaria hartu eta Andaluziako behartsuei emateagatik. 20 sindikalista hauek 30 urtetako kartzela zigor eskari bati egin beharko diote aurre.

Ekintza hau, Andaluzian eta beste toki askotan ondorio dramatikoak izan dituen krisi ekonomiko baten erdian eman zen. Egoera horretan SAT-ek Arcos de la Fronterako (Cadiz) Carrefourrean eta Écijako (Sevilla) Mercadona batean janaria hartu eta modu ageriko eta publiko batean Andaluziako behartsuen artean banatu zuten. Carrefourrek salaketarik ez jartzea erabaki zuen bitartean, Mercadonak aurkeztu egin zuen eta honen ondorioz, SATeko 20 sindikalista akusatuen aulkian eseriko dira gaur.

LAB sindikatutik gehiegikeria hau eta SAT-eko kideen kontrako epaiketa hau salatzen ditugu. Supermerkatu handi hauetan askotan zakarrontzian bukatzen duen janaria hartu eta bizirauteko behar-beharrezkoa zutenen artean banatzea helburu zuen ekintza erabat baketsua izan zen.

Horregatik salatutako 20 pertsonen askatasuna eta SAT sindikatuaren nahiz ekintza sindikalaren kriminalizazioaren amaiera exijitzen ditugu. Euskal Herrian La Sangiovesako kasua dugu, non sindikalista bat 21 hilabetetara kondenatua izan den. Hor daukagu Huerta de Peraltako kasua ere, non milaka eurotako isunez gain, sindikalista baten aurka 2 urte eta erdiko kartzela zigor eskaria dagoen eta atzerritarren legedia aplikatuz, 5 urtez Espainiako estatutik kanporatua izateko eskariari aurre egin beharko dion.

Aipatutako guztiagatik zapaldu, esplotatu, eta egoera honi aurre egiten diogunak kriminalizatu

eta zigortu egiten gaituen sistema honen kontrako borrokan gaudenen arteko elkartasuna beharrezkoa da. Horregatik espetxean dagoen Fran Molero SAT-eko kidearen eta Mercadona kasuan auziperatutako 20 sindikalisten askatasuna aldarrikatzen ditugu.